

## 2007-07-19ko OHIZ KANPOKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zazpigarren urteko uztailaren hemeretziaren, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiz kanpoko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Agustin Zubeldia Iraola jauna, M. Jesus Otaño Zumeta andrea, Eugenio Loidi Garmendia jauna eta Jose Luis Olano Zubeldia jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute Aitor Lasa Olalde jauna, eta Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak.

Ez dira etorri eta ez dute adierazi ezin etorria: inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

### LEHENBIZIKO GAIA

#### ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

-2007-05-24ko 59/07 Dekretua: Irurako Arau Subsidiarioen 20 zonaldeko (Laskibar Parkea) urbanizazioari behin betiko onarpena ematea eta Promociones y Construcciones Kisketek, jarritako abala itzultzea.

-2007-05-25eko 60/07 Dekretua: Lehen okupaziorako baimena ematea 20. exekuzio unitatean dauden 12 etxebizitzarako.

-2007-05-25eko 61/07 Dekretua: Lehen okupaziorako baimena ematea 20. exekuzio unitatean dauden 22 etxebizitzarako.

-2007-05-25eko 62/07 Dekretua: Lehen okupaziorako baimena ematea 20. exekuzio unitatean dauden 7 etxebizitzarako.

-2007-06-06ko 63/07 Dekretua: Antonio Gomez Martinen istripuaren espedientearen kopia eskuetsia, administrazioarekiko auzietako 2. epaitegira eta interesatuei igortzea.

-2007-06-07ko 64/07 Dekretua: Naturgas Energia Distribucionez egindako obra lizentzia eskaera onartzea, aldi berean zenbait baldintza ezarriz.

-2007-06-08ko 65/07 Dekretua: Isidro Lopez Redondok poliesterrezko igerilekua jarri ahal izateko egindako baimen eskaera onartzea, aldi berean zenbait baldintza ezarriz.

-2007-06-08ko 66/07 Dekretua: Maiatzari dagozkion fakturak onartzea, 47.567,19€ko zenbatekoa osatzen dutelarik eta Arau Subsidiarioen aholkularitza zerbitzuaren faktura, 3.634,99€koa.

-2007-06-13ko 67/07 Dekretua: Okindegi aurrean 10 mahai jartzeko baimena ematea Opil okindegiari, zenbait baldintzekin.

-2007-06-15eko 68/07 Dekretua: SICE-k, Laskibar bailaran zuntz optikoa jartzeko eskatutako obra baimen lizentzia ematea, aldi berean zenbait baldintza ezarriz.

-2007-06-18ko 69/07 Dekretua: Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2005eko apirilaren 12ko bileran, Gipuzkoako Hiri Hondakinen

Prebentzioari buruzko Dekalogoia onartuz hartu zuen erabakiaren II. Eranskinean agertzen den Prebentzioari buruzko Konpromisoa izenpetzea.

-2007-06-20ko 70/07 Dekretua: Tolosako eta Leitzaldeko Hitzak, betebeharreko baldintzak bete dituztela eta, egindako diru eskaera ontzat eman eta 2.300€ko ordainketa agintzea.

-2007-06-22ko 71/07 Dekretua: Irurako biztanlea den Goizargi Oruesagasti Otañok UEUko ikastaroetara joateko egindako dirulaguntza eskaera ontzat ematea eta matrikularen %100 ordaintzea, ordenantzan araututako baldintzen arabera.

-2007-06-25eko 72/07 Dekretua: "Goiza pasa 2007" udaleku irekiaren egitaraua antolatu eta betetzeko 8 begirale eta zuzendari bat kontratatzea.

-2007-06-29ko 73/07 Dekretua: Mercado y Desarrollo de Terrenos, S.L.-ek eskatutako lehen okupaziorako lizentzia ematea, 16. zonaldean dauden 6 etxebizitzarako.

-2007-06-29ko 74/07 Dekretua: Mercado y Desarrollo de Terrenos, S.L.-ek sustatutako Irurako Arau Subsidiarioetako 16. zonaldearen urbanizazio lanei behin behineko onarpena ematea.

-2007-07-13ko 75/07 Dekretua: Naturgas Energia enpresak 2007ko bigarren hiruhilekoan Iruran egindako gas horniketa egiteko, erabilpen pribatiboa eta aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasa likidatzea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

### **BIGARREN GAIA**

#### **OHIKO BATZORDEEN MAIZTASUNA, ORDUA ETA EGUNA ZEIN IZANGO DEN ERABAKITZEA.**

7/1985 legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 46. artikuluan ezartzen duenez, 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udaletan, ohiko bilkura gutxienez hiru hilabete behin egin beharra dago.

Aipatutakoa ikusirik, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, udalaren ohiko osoko bilkurak bi hilean behin hilaren lehenengo asteartean, arratsaldeko 8:30ean egitea erabakitzen du. Astearte hori jai eguna edo jai egun bezpera izango balitz, ohiko bilkura hurrengo asteartean ospatuko litzateke.

### **HIRUGARREN GAIA**

#### **ALKATEORDEEN AUKERAKETA ETA IZENDATZEA.**

Sesio berean eta udalbatza entzun ondoren, Alkatetza Dekretu hau ematen da:

"7/1985 legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 21.2 artikuluan ezartzen duenez, alkatetzari dagokio alkateordeak izendatzea.

Honetaz gain, aipatutako legearen 23.3. artikulua dionez, alkateordeek, izendatze hurrenkeran, alkatea ordezkatzeko dute honen hutsaldi, ausentzia edo gaixotasun kasuetan, eta berak bere kabuz zinegotzien artetik izendatu edota kargutik ken ditzakeelarik.

Honen aurrean, ondokoa erabakitzen dut:

**Lehena.-** Agustin Zubeldia Iraola zinegotzia lehen alkateorde izendatzea.

**Bigarrena.-** Eugenio Loidi Garmendia zinegotzia bigarren alkateorde izendatzea.

**Hirugarrena.-** Interesatuei jakinarazi bezaie erabaki hau eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadila.

**Laugarrena.-** Akordio hau behin betikoa da bide administratiboan. Beraren aurka administrazioarekiko auzietako errekurtsioa jarri ahal izango da, Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegian.”

Honen aurrean, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, aipatutako dekretuaren jakitun gelditzen dira.

## **LAUGARREN GAIA BATZORDE BERRIEMAILE IRAUNKORREN ERAKETA (IZENDAPEN ETA OSAKETA).**

7/1985 legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 20. artikuluan arautzen duenez, Kontuen Batzorde Berezia osatzea derrigorrezkoa da, baina besteen aukera zabalik gelditzen da.

Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko lau batzordeak osatzea erabakitzen du:

- Hirigintza eta Ingurugiroa:
  - Lehendakaria: Marimi Ugalde Zabala
  - Kideak: Agustin Zubeldia Iraola eta Jose Luis Olano Zubeldia
  
- Kultura:
  - Lehendakaria: Aitor Lasa Olalde
  - Kideak: Marimi Ugalde Zabala eta Jose Luis Olano Zubeldia
  
- Gizarte sustapena:
  - Lehendakaria: Eugenio Loidi Garmendia
  - Kideak: Marimi Ugalde Zabala eta Gregorio Lasa Etxezarreta
  
- Kontuen Batzorde Berezia:
  - Lehendakaria: Marimi Ugalde Zabala
  - Kideak: Eugenio Loidi Garmendia eta M. Jesus Otaño Zumeta

Kontuen Batzorde Bereziko partaideak arduratuko dira ogasuneko gaiez gain, baita pertsonalekoetaz ere.

**BOSGARREN GAIA**  
**ERAKUNDE EZBERDINEN AURREAN ORDEZKARI IZANGO DIRENAK**  
**IZENDATZEA**

Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, elkarre, erakunde eta mankomunitateetan ondorengo ordezkariak izendatzea erabakitzen du:

<b>ERAKUNDEA</b>	<b>ORDEZKARIA / K</b>
Tolosaldea Garatzen	Marimi Ugalde Zabala
Ur kontsortzioa	Marimi Ugalde Zabala
Tolosaldeko Mankomunitatea	Marimi Ugalde Zabala
Ernioaldea Agenda21	Marimi Ugalde Zabala
Tolomendi	Agustin Zubeldia Iraola
Anoeta Ikastolako Mankomunitatea	Marimi Ugalde Zabala Eugenio Loidi Garmendia
Euskal Fondoa	Agustin Zubeldia Iraola
UEMA	Marimi Ugalde Zabala M. Jesus Otaño Zumeta
EUDEL	Marimi Ugalde Zabala

**SEIGARREN GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, ZAHARREN BILTOKIKO TABERNAKO PREZIOEN**  
**BERRIKUSTEA**

2005eko irailaren 27ko batzarrean, Irurako Udalbatzak lehiaketaren baldintza ekonomiko-administratiboen plegua onartu zuen, Irurako Zaharren Biltokiko zerbitzuak ustiatzeko administrazioko emakidarako.

2005eko abenduaren 20ko udal honetako osoko bilkuran, udalbatzak aho batez erabaki zuen, Miren Marquet Iraizosi esleitzea Irurako Zaharren Biltokiko zerbitzuak ustiatzeko emakida, aurkeztutako proposamenaren arabera.

Esleipendunak, Irurako Zaharren Biltokiko tabernako prezioen berrikuspena proposatu du. Lehiaketaren baldintza pleguetako 4.b. idazpuruan adierazitakoaren arabera, prezioak urtero azter daitezke, urte natural bakoitzeko urtarrilaren lehenarekin batera aplikatuko direlarik.

Aurten, oraindik ez da inongo prezioen errebisiorik egin, arrazoi ezberdinak medio.

Aurreko guztia kontuan izanik, Udalbatzak aho batez erabaki du, esleipendunak aurkeztutako prezioen berrikuspena ontzat ematea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

**ZAZPIGARREN GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAN**  
**IRURAKO UDALARI DAGOKION EKARPENAREN BIGARREN ZATIAREN**  
**ORDAINKETA EGITEA**

Tolsaldeko Mankomunitateak, ondoko azalpenak dituen faktura igorri dio Irurako Udalari:

- ❑ 2007 ekitaldirako Sasieta zabortegiko isurketen %50
- ❑ 2007 ekitaldirako zabor bilketa zerbitzu mankomunatu berria %0
- ❑ 2007. ekitaldirako gainontzeko zerbitzuen %50

Guztira, Irurako Udalari dagokion ordaintzekoa 18.971,26€ da BEZ barne eta urtean zehar egin beharreko bigarren ekarpena (uztailetik abendurako epealdia) suposatzen du.

Udalbatzak aho batez onartu du, Tolosaldeko Mankomunitatean Irurako Udalari dagokion ekarpenaren bigarren zatiaren ordainketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

**ZORTZIGARREN GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, LOATZO MUSIKA ESKOLAREN**  
**FUNTZIONAMENDURAKO IRURAKO UDALALARI DAGOKION**  
**ORDEZKARIAREN AUKERAKETA ETA IZENDATZEA.**

Irurako Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko uztailearen 4an, Irura Udalerria Loatzo Musika Eskola Mankomunitatean bazkide gisa sartzeko proposamena onartu egin zuen, aldi berean, Loatzo Musika Eskola Mankomunitatean eraginean jarraitzen duten estatutuak onartuz.

2007ko maiatzaren 27ko hauteskunderen ondorioz Udaletxe berriak osatu direnez, Loatzo Udalerriaren Mankomunitateko Junta berria osatu beharra dago. Irurako Udalari ordezkari bat dagokio aipatutako mankomunitateko kide bezala eta honen aukeraketa egitea eskatzen dute mankomunitatetik.

Udalbatzak aho batez erabaki du, Marimi Ugalde Zabala alkate lehendakaria Irurako Udaleko ordezkari izendatzea Loatzo Udalerriaren

Mankomunitateko Juntan.

**BEDERATZIGARREN GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, GIPUZKOAKO URAK KONTSORTZIOAREN**  
**BARRUAN, AZPIEGITUREN FINANTZIAKETA AURRERA ERAMATEKO**  
**ASMOZ, IRURAKO UDALARI DAGOKION EKARPENAREN BIGARREN**  
**ZATIAREN ORDAINKETA EGITEA.**

Gipuzkoako Urak Kontsortzioak, azpiegituren finantziazioari dagokion faktura igorri du. Faktura hau, 2007. urtearen bigarren zatiari dagokio eta Gipuzkoako Urak Kontsortzioaren saneamendu planari egokitzen zaio.

Fakturaren zenbatekoa 12.985,07€koa da BEZ barne eta 2007ko azaroaren 25a baino lehen egin behar da ordainketa.

Udalbatzak aho batez onartu du, Gipuzkoako Urak kontsortzioaren barruan, azpiegituren finantziaketa aurrera eramateko asmoz, Irurako Udalarari dagokion ekarpenaren bigarren zatiaren ordainketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

**HAMARGARREN GAIA**  
**ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO UDALA ETA ENERGIAREN EUSKAL**  
**ERAKUNDEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMEN OROKORRA**  
**SINATZEA ETA HONETARAKO MARIMI UGALDE ZABALA ALKATEA**  
**SINATZEKO AHALMENTZEA.**

Irurako Udala Agenda 21 burutzeko udal-taldean sartu zen. Hori dela eta, aurretik eginak zituen hainbat ikerlan, proposamen, eztabaida eta ekarpen, herriko erakundeekin, teknikoekin eta herritarrekin. Zegozkion ekarpenak jaso ondoren, Irura iraunarazteko Diagnostikoa deritzan dokumentua osatu zen: Laburpena eta Ondorioak. Irurako Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko maiatzaren 9an aho batez erabaki zuen Diagnostikoa izeneko dokumentua onartzea.

Irurako Udalaren Osoko Bilkurak, 2007ko otsailaren 14an aho batez erabaki zuen, Udaltalde 21ekin batera diseinatutako Irurako iraunkortasunaren aldeko ekintza plana onartu eta aurrera eramatea ahal den era apropos eta egokienean.

Guzti honen ildo beretik jarraituz, Garbiñe Olaberria Azaldegia, Ernioaldea Udaltalde 21eko teknikariaren oniritziarekin, Irurako Udalaren eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE / EVE) arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko

proposamena egiten da.

Lankidetza hitzarmen honen xedea, elkarlanerako sistema bat finkatzea da Irurako Udala eta EEEn artean, energia-eraginkortasun eta energia berriztagarrien alorrean. Lankidetza sistema, honako premisatan oinarritzen da: erabilgarri izan daitekeen informazio tekniko, ekonomiko eta sozial oro erraztea eta trukatzea, udalerraren interesaren alde egokitzat jotzen diren ekintzak elkarrekin sustatzea, energia politikaren printzipioekin bat etorritz.

Hitzarmen hau ahalik eta malgutasun eta dinamismorik zabalenaz egin da, egokien jotzen diren neurriak aldian-aldian biltzeko moduan.

Jarduera hauek egitea aurrakusi da, besteak beste: informazioa trukatzea, finantzatzea, sentikortzea, laguntza teknikoa ematea. Huetaz gain, EEEK konpromisoa hartzen du lehen txostena egiteko; bertan, Irurako Udalerrian egin litezkeen jarduerak azalduko dira, hala energia-eraginkortasunari nola energia berriztagarriei dagokienez. Gainera, hitzarmen honen magalpean egin beharreko ekintzak urtean behin erabakiko dira; baita aurrekontu ekonomikoak eta finantzatzeko bideak ere.

Hitzarmena ondo betetzen ari dela egiaztatzearen, alde biek hala adostuta, jarraipen batzordea eratuko da Irurako Udaleko bi ordezkari eta EEEKo beste bik adostua.

Udalbatzak aho batez onartu du, Irurako Udala eta Energiaren Euskal Erakundearen arteko lankidetza hitzarmen orokorra sinatzea eta honetarako Marimi Ugalde Zabala alkatea sinatzeko ahalmentzea.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 21:35ean eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.